

LABEGUERIE' ren
LAU KANTA

LEHEN DIZKA

AURTZO-AURTZO

Izu egin lo, aita urrun da, Euzkadiren zerbitzuko
Zure ondoan ama daukazu, ez zaitu inoiz utziko.

*Aurtzo-aurtxoa, izu egin lo,
Emen nauzu zu zainizeko.*

Izu egin lo, aita preso da zu biar libro-izaiteko
Egun batian etorriko da gu biokin egoiteko

Aurtxo...

Izu egin lo, iluna gatik zeruan izar bat dago
Mila ta mila izango dire, aita libratu-ta gero.

Aurtxo...

PRIMADERAKO LILIAK

Primaderako liliak
Goizik ziren loratuak
Urthe hartan gertatu zen
Pazko Erramu baino lehen.

*Gaituzte ezkontarazi,
Maite ninduzun bain guti
Ezkontarazi gaituzte
Ez zintudalarik maite.*

Ginuelarik elgarri
Eman biziko uztarri
Ezkilak zauden ixilik
Nik ez baitakit zergatik.

Gaituzte ezkontarazi...

Ez zuten egin boleran
Menturaz ziren Erroman
Ez ziren gure lekuko
Ez izanen baltaioke.

Gaituzte...

Nunbeit balinbada zeru
Gure haurra da aingeru
Aingeru zeruan bainan
Umerik ez ohantzean.

Gaituzte...

Bihotza hotzez kaskaran
Nago geroaren menturan
Etor bedi primadera
Kanpoak ditzen berriz lora.

Gaituzte...

Xoriak amodiotan
Berriz hastean bertsoan
Leihoa dut idekiko
Amodioa da sartuko.

*Gaituzte ezkontarazi
Elgarrekin behar bizi
Ezkontarazi gaituzte
Behar dugu elgar maite.*

GUDARI ESKUALDUNAREN KANTUA

Zer duk nigarrez, zer duk hain ilhun,
Eskualdun gudari ?
Ator gurekin, phesta duk egun,
Gaitezen liberti.

*— Ez, ez, ez naike alai izan ni
Ez baita libro Euzkadi (bis)*

Lagunak hilak, gorputz lur pean,
Edo desterruan...

Gu berritz hemen, bertzen menean,
Preso gur'etxean...

*— Ez, ez, ez naike alai izan ni
Ez baita libro Euzkadi (bis)*

Gauak goiz alba duela ondoko,
Lagun, orhoitadi.

Luza gabe diuk bai libratuko
Gur'Ama Euzkadi

*— Bai, bai, bai alai izango naiz ni
Libratu-eta Euzkadi (bis).*

BAKEAREN URTXOA

Bakearen urtxoa, oi urtxo ezitia,
Hegalez kurri zazu lur zabal guzia.
Kontsola gerla-pean dagoken jendia,
Hilen haur, ait'et'amak, eta emaztia,
Kolpatua herrestan dabilan trixtia,
Presoner dohakabe, hilik den bizia ;
Errozute deneri :

*Jende gaixoak,
Ez beba gau beltzari,
Bainan bai izarrerri !
Bakea dela zueri !*

Bakearen urtxoa, jarraik bideari,
Zure lili ezitia eskainiz orori.
Mintza zaitte ezinik dagon eriarri ;
Bihotza bero zozu xahar hoztuari ;
Esperantza emozu kezkan den amari,
Bere latza ken-ozu hilen ezkilari.
Errozute deneri :

*Jende gaixoak,
Ez beba gau beltzari,
Bainan bai izarrerri !
Bakea dela zueri !*

Bakearen urtxoa, hemen zaitte geldi
Lur hau da sakratua, deitzen da Euzkadi.
Zorte txar batez joak girare aspaldi,
Denak anaiak-eta, bizi bi alderdi.
Gerla da berrikitan pasa hemen gaindi ;
Eskualduner urtxoa, othoi, mintza bedi !
Errozute deneri :

*Oi Eskualdunak,
Ez beba gau beltzari,
Bainan bai izarrerri !
Bakea dela zueri !*

GOIZTIRI - 14, Kordelieren karrika, BAIONA

G13-0411

1007098
G13-0411



1007098

1007098